

G. Puccini

# TOSCA

OPERA FIRST AID KIT

# Fitxa teknikoa

**TOSCA** (1.zatia: 45 min, Etenaldia: 25 min., 2.zatia: 45 min., Etenaldia: 25 min., 3.zatia: 35 min.).

| | |
|---|---|
| **Floria Tosca** | Oksana Dyka |
| **Mario Cavaradossi** | Roberto Aronica |
| **Barón Scarpia** | Gabriele Viviani |
| **Cessare Angelotti** | Alejandro López |
| **Elizaina** | Fernando Latorre |
| **Spoletta** | Moisés Marín |
| **Sciarrone** | Jose Manuel Díaz |
| **Kartzelaria** | Gexan Etxabe |
| **Artzaina** | Helena Orcoyen |

**Bilbao Orkestra Sinfonikoa**
**Bilbaoko Operaren Korua**
**Leioa Kantika Korala**

| | |
|---|---|
| **Zuzendari musikala** | Pedro Halffter |
| **Eszena zuzendaria** | Mario Pontiggia |
| **Eszena zuzendariaren laguntzailea** | Angelica Dettori |
| **Eszenografia** | Francesco Zito |
| **Escenografía laguntzailea** | Antonella Conte |
| **Argiztapena** | Bruno Ciulli |
| **Jantzigintza** | Francesco Zito |
| **Jantzigintza laguntzailea** | Stefano Nicolao |
| **Operako koruaren zuzendaria** | Boris Dujin |
| **Leioa Kantika Koralaren zuzendaria** | Basilio Astulez |
| **Maisu errepikatzaileak** | Itziar Barredo & Iñaki Velasco |

**Produkzioa:** Teatro Massimo di Palermo .

# Ficha técnica

**TOSCA** (1er acto 45 min, Pausa: 25 min., 2º acto: 45 min., Pausa: 25 min., 3er acto: 35 min.).

| | |
|---|---|
| **Floria Tosca** | Oksana Dyka |
| **Mario Cavaradossi** | Roberto Aronica |
| **Barón Scarpia** | Gabriele Viviani |
| **Cessare Angelotti** | Alejandro López |
| **Sacristán** | Fernando Latorre |
| **Spoletta** | Moisés Marín |
| **Sciarrone** | Jose Manuel Díaz |
| **Carcelero** | Gexan Etxabe |
| **Pastor** | Helena Orcoyen |

**Bilbao Orkestra Sinfonikoa**
**Coro de Ópera de Bilbao**
**Leioa Kantika Korala**

| | |
|---|---|
| **Director musical** | Pedro Halffter |
| **Directora de escena** | Mario Pontiggia |
| **Asistente de dirección de escena** | Angelica Dettori |
| **Escenografía** | Francesco Zito |
| **Asistente de escenografía** | Antonella Conte |
| **Iluminación** | Bruno Ciulli |
| **Vestuario** | Francesco Zito |
| **Asistente de vestuario** | Stefano Nicolao |
| **Director del Coro de Ópera** | Boris Dujin |
| **Director de Leioa Kantika Korala** | Basilio Astulez |
| **Maestros repetidores** | Itziar Barredo & Iñaki Velasco |

**Producción:** Teatro Massimo di Palermo .

# ARGUMENTUA (Spoiler ALERT!)

Lehenengo zatia Sant Andrea della Valle elizan kokatzen da. Angelottik, Scarpiak espetxeratuta, kartzelatik ihes egin du, Erromatik alde egiteko asmoz. Bere arreba, Attavantiko markesa andrea, bere arropak elizan ezkutatzera joan da, Angelotti mozorrotu dadin eta horrela, ihes egin dezan. Elizan bertan, Mario Cavaradossi Maria Magdalenaren irudi bat margotzen ari da, Floria Toscarekin duen maitasunean inspiratua. Baina koadroak nahiko kontzeptuala izan behar zuen, Tosca beltzarana baitzen, begi ilunekin, eta berak margotzen duen emakumea ilehoria da, begi urdinekin. Angelotti sakristiatik ateratzean, Mariori laguntza eskatzen dio ihes egiteko. Baina orduantxe, Toscak Marioren ahotsa entzuten du! “Mario! Mario!” Eta Angelotti berriro ezkutatzen da. Hemen zerbait garrantzitsua dator: Floriak zailtasunak ditu jeloskortasunarekin, beraz, lehenengo aldiz elizan sartzean, Mariok beste emakume batekin hitz egiten duela pentsatzen du. Gainera, elizatik irteten denean, jeloskortasun-krisiak jota, margotzen ari diren koadroa ikusten du: Attavanti kondesa identifikatzen du. Zorionez, Mariok lasaitu egiten du, eta bera inoiz baino maiteminduago joaten da elizatik.

Angelottik, eszenara ateratzean, Mariori ihes egiteko asmoa duela esaten dio. Ondoren, elizatik irten eta jende mordoa sartzen da Scarpiarekin batera, Napoleonen porrotaren aldeko ospakizuna antolatuz. Scarpiak eliza miatzen du eta Attavantiko markesaren abanikoa eta Marioren otzara aurkitzen ditu. Puzzle konplexu honen piezak erlazionatu eta margolaria Angelottiri ihes egiten laguntzen aritu dela ulertuko du. Scarpia oso maiteminduta dago Toscarekin eta ez du aukerarik galtzen abanikoa Toscaren jeloskortasun-eraso baten eragile gisa erabiltzeko.

Bigarren zatia Scarpiaren etxean gertatzen da. Tosca limurtzeko bere plana martxan jarri du. Scarpia Angelottiri buruz galdezka hasten zaio Mariori, Tosca eszenan sartzen den arte. Orduan, Scarpiak Mario aldameneko gelara bidaltzen du torturatzeko. Bien bitartean Tosca galdekatzen du eta honek, egia kontatzen dio Marioren garrasiei ezin eusteagatik. Mariok konortea berreskuratzen duenean, Toscari galdetzen dio ea egia aitortu duen eta berak ezetz esaten du (kar kar). Scarpiak Angelotti atxilotzeko agindua egiten du eta, Napoleonek irabazi duela jakin ondoren, Mario ere fusilatzea erabakitzen du. Orduan Toscak Scarpiarekin akordio bat negoziatzen du: Marioren fusilamendu faltsua antolatuko dute, Scarpiarekin berarekin sexua izatearen truk. Scarpia Tosca bortxatzera hurbiltzen den unean, neskak labana hartu eta erailtzen du.

Hirugarren zatia Cavaradossiren ziegan hasten da. Agur gutun bat idazten ari zaio Toscari, hura exekutatu aurretik. Momentu horretan, Tosca agertzen da eta Scarpiarekin gertatutako guztia kontatzen dio. Gainera, fusilatzen dutenean nola erori behar duen demostratzen dio, sinesgarriagoa izan dadin. Hortaz, Mario Toscaren aurrean fusilatzen dute, eta engainuaz ohartzen denean, “Scarpia Jaungoikoaren aurrean!” hitzekin buruaz beste egiten du.

# ARGUMENTO (Spoiler ALERT!)

El primer acto sucede en la iglesia Sant'Andrea della Valle. Angelotti, puesto en prisión por Scarpia, acaba de escapar y planear huir de Roma. Su hermana, la marquesa de Attavanti, ha ido escondiendo ropa suya en la iglesia para que Angelotti se disfrace y escape. En la misma iglesia Mario Cavaradossi pinta una imagen de María Magdalena inspirada en su amor por Floria Tosca, aunque el cuadro debía ser bastante conceptual porque Tosca era morena con ojos oscuros y la mujer que él pinta es rubia de ojos azules. Angelotti sale de la sacristía y le pide ayuda a Mario para escapar. Pero entonces se escucha la voz de Tosca "Mario! Mario!", y Angelotti se esconde de nuevo. Aquí viene algo importante: Floria tiene issues tochos con los celos, así que de primeras entra en la iglesia pensando que Mario habla con otra mujer y saliendo de la iglesia ve el cuadro que está pintando entonces... crisis de celos. Reconoce a la condesa Attavanti. Por suerte Mario le tranquiliza y ella se va de la iglesia más enamorada que nunca.

Angelotti sale de nuevo y le cuenta a Mario su plan de huida. Seguido se van de la iglesia y entra un montón de gente junto a Scarpia, organizando una celebración por la derrota de Napoleón. Scarpia registra la iglesia y encuentra un abanico de la marquesa de Attavanti y la cesta de comida de Mario. Une las piezas del puzzle y descubre que el pintor ha estado ayudando a Angelotti a escapar. Pero Scarpia está muy enamorado de Tosca y no pierde la oportunidad de utilizar el abanico como detonante de un ataque de celos de Tosca.

El segundo acto sucede en casa de Scarpia. Su plan para seducir a Tosca ha comenzado. Empieza a interrogar a Mario violentamente sobre Angelotti hasta que Tosca entra en escena. Entonces Scarpia envía a Mario a la habitación de al lado para que lo torturen e interroga a Tosca, que termina confesando al no aguantar los gritos de Mario. Cuando Mario recupera el conocimiento pregunta a Tosca si ha confesado y ella dice que no (XD). Scarpia ordena arrestar a Angelotti y, tras recibir la noticia de que Napoleón ha ganado, decide también fusilar a Mario. Entonces Tosca negocia con Scarpia un acuerdo que dice que harán un fake fusilamiento de Mario a cambio de que ella tenga sexo con Scarpia. En el momento en el que Scarpia se acerca a violar a Tosca, ella coge un cuchillo y lo mata BAAAAM.

El acto tercero comienza en la celda de Cavaradossi. Está escribiendo una carta de despedida a Tosca antes de su ejecución. Tosca aparece y le cuenta todo lo sucedido con Scarpia. Además le enseña cómo debe caer cuando le fusilen para que sea más real. Efectivamente Mario es fusilado frente a Tosca, que cuando se da cuenta del engaño salta al vacío al grito de "Scarpia, ¡delante de Dios!".

Pucciniren aurreko opera, La Bohème (1896), poesia hutsa da, eta Tosca, berriz, drama eta akzioa estilo zinematografikoagoan. Gainera, baliteke Tosca inoiz idatzitako klixe gehien dituen opera izatea: 1800.urtean Erroman gertatu zen, bere konpositorea Puccini izan zen, maitasunezko drama bat izan zen eta -SPOILER ALERT- protagonista guztiak hil ziren. Hau guztia 24 ordu baino denbora gutxiagoan. Mario Cavaradossi margolariak, Scarpia baroiak eta Floria Tosca abeslari eta aktoreak osatzen dute obra honetako triangelu protagonista.

## Iruzurrez blai...

Tosca opera abeslari baten rola interpretatzen duen opera abeslari bat da, soprano askoren ustez, abesteko paper gogokoenetako bat da (sorpresarik ez...). Gainera, zure erasotzailea bortxatua zaren bitartean hiltzea edo operaren amaieran hutsera salto egitea bezalako momentuak eszeniko itzelak ditu. Baina eszenan aritzeak publikoa engainatzea baldin bada, Toscaren argumentuak ere engainu mordoa erakusten ditu:

- Cavaradossik Tosca engainatzen du Angelotti bere atzean ezkutatuz.
- Scarpiak Tosca engainatzen du Attavantiko markesa andrearen abanikoarekin.
- Tosca gezurretan ari zaio Cavaradossiri Angelotti non dagoen aitortu izanaz.
- Toscak Scarpia engainatzen du bere gorputza sari gisa aginduz.
- Scarpiak Tosca engainatzen du Cavaradossiren exekuzio faltsuarekin.
-

Eta denetan xamurrena:

- Cavaradossik, fusilamendua benetakoa izango dela jakin arren, ez dio Toscari ezer esaten eta haren ondoan abesten du.

Mientras que la anterior ópera de Puccini, La Boheme (1896), es pura poesía, Tosca es drama y acción al estilo más cinematográfico. Además puede que Tosca sea la ópera con más clichés jamás escrita: sucede en Roma en 1800, su compositor es Puccini, es un dramón amoroso y -SPOILER ALERT- todos los protagonistas mueren. Todo esto en menos de 24 horitas. El pintor Mario Cavaradossi, el barón Scarpia y la cantante y actriz Floria Tosca son el triángulo protagonista de esta ópera.

## De engaños va la cosa...

Tosca es una cantante de ópera interpretando a una cantante de ópera, ninguna sorpresa que sea uno de los papeles favoritos de cantar de muchas sopranos. Además tiene momentazos como matar a tu agresor mientras eres violada o saltar al vacío al final de la ópera. Pero si actuar en escena va de engañar al público, también podríamos ver el argumento de Tosca como una serie de engaños:

- Cavaradossi engaña a Tosca escondiendo a Angelotti a sus espaldas
- Scarpia engaña a Tosca con el abanico de la marquesa de Attavanti
- Tosca miente a Cavaradossi sobre haber confesado dónde está Angelotti
- Tosca engaña a Scarpia prometiéndole su cuerpo como recompensa
- Scarpia engaña a Tosca con la ejecución falsa de Cavaradossi

Y la más "tierna" de todas:

- Cavaradossi, pese a saber que el fusilamiento será real, no le dice nada a Tosca y canta junto a ella.

GAZTEAM

GAZTEAM · ABAO Bilbao Opera

gazteam@abao.org / www.gazteamabao.org

@gazteam.abao